

LABURPENA

Atxikita aurkituko duzuen azterlanak “Gazteen enplegarritasunerako eredu teorikoa” deskribatzeko xedea dauka. Eredu honek lehiakortasun jasangarria bultzatzeko, kalitatezko lana sortzeko, eta hezkuntza sistema eta lan munduaren arteko egokitze hobea sustatzeko oinarri teorikoak ezartzen duen gizarte erronka handiari erantzun beharko lioke.

Gazteen enplegarritasunari buruz ari garenean, kontuan hartu behar dugu enpresa-kultura eredu jakin baten testuinguruan eman behar dela eta gizarte jakin batean nagusi diren baloreekin lotuta egon behar dela. Ikuspuntu ezberdin hauek hurrengo tesia sortzera bultzatu gaituzte: pertsona gazteen enplegarritasuna hobetzeko gizarte berrikuntza, enpresa-eredua zehatza eta gazteen gaitasun zehatzak garatu behar ditugu.

Baina, nolakoa da gure ingurune soziala? Zeintzuk dira antolakuntza kultura berritzailearen azpian dauden elementuak? Eta batez ere, zeintzuk dira testuinguru hauetan gazteak enplegarriago egingo lituzketen banakako gaitasunak?

Azterketa maila bakoitzean oinarri teorikoak ikertu ondoren, Euskadiko ingurunean gizarte erronka nagusiak ezagutuko ditugu; ikerlan berrienen arabera gizarte berrikuntzetan oinarritutako antolakuntza kultura definitzen duten alderdiak aztertuko ditugu eta kultura horiei zentzua ematen dieten antolakuntza dinamikak ezarriko ditugu. Bukatzeko, EAEn oraingo gazte-langabeziaren argazkia aurkeztuko dugu, eta lan-motaren, beharrezko gaitasunen eta enpresa-kultura aldaketaren ikuspegiaren arabera enpleguen bilakaera nolakoa izan den galderari erantzuna emango diogu.

Ondoren, elementu hauek guztiak, gaitasunekoak, antolakuntzakoak eta testuingurukoak, kontuan izango ditugu eredu teorikoari, hipotesien planteamenduari eta aldagaien eta neurtzeko lanabesen aurkezpenari forma emateko. Ikerkuntza enpirikoak hor nonbait berritzaile den antolakuntza kulturaren eta honek gazteen enplegarritasuna hobetzen duten gaitasunen garapenean duen eraginaren arteko erlazioa aztertzean jarriko du arreta.

Gero, azterlanaren diseinu esperimentalak aurkeztuko da, eta 2017. urtean zehar neurtzeko lanabesen barne baliozkotasuna eta fidagarritasuna aztertzeko egin dugun fase pilotuan jarriko da arreta. Diseinua, aldagaien operazionalizazioa eta metodologia zehaztu ditugu eta egindako analisi ezberdinak aurkeztuko ditugu.

Maila estatistikoan nabarmenagoak diren emaitzei erreparatuko diegu eta azkenenik, ondorio nagusiak zehaztu eta 2018 urteari begira azterlanaren hurrengo pausuetan aurrera egiteko lagunduko diguten pilotu faseko gertakizunak antzemango ditugu.

Jarraian azterlanaren ondorio nabarmenenak aipatuko ditugu:

- Euskal gazteek lanerako gaitasunen garapen egokia dute, banakako eta taldeko lanari dagokionez. Dena den, berrikuntzarekin, ekintzaile izatearekin eta buruzagitzan parte-hartzearekin lotutako gaitasunetan hobetzeko aukera dago.

- Gaitasunak lortu aurreko gazteoi bultzada ematen dituzten arrazoiak eta baloreak gizarteari laguntzeko bokazioarekin, gizartearentzat baliozkoa izatearekin, goi-mailako kalitate-estandarrak lortzeko eta garapen profesional egokia lortzeko nahiarekin lotuta daude, erabakiak autonomiaz hartzen eta bere jarduera propioa antolatzen ikasten eta aztertzen uzten dituen.
- Gazteen gaitasunak baldintzatzen dituen eragiletako bat hezkuntza sistema da. Hori dela eta, hezkuntza sistemak lan munduarekin estuago lotuta dauden gaitasunen garapena bultzatu beharko luke.
- Gazteen asetze-maila, praktika esperientziari eta enpresari dagokionez, baita beraien enplegagarritasunean antzemandako hobetze-mailari dagokionez, beste aldagaien artean, gardentasunak, egindako lanak atzeraelikatzeke duen gaitasunak eta lanpostuaren motibatzeke gaitasunak baldintzatzen dituzte. Hau gardentasunaren kasuan are nabarmenagoa da, izan ere gardentasuna praktiken tutorearen bidez transmititzen zaio gazteari, hori dela eta praktiken tutoreak rol nagusia dauka gazteen enplegagarritasunaren garapenean.